

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko apirilaren 29ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Foru dekretua:**

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2020 Foru dekretua, apirilaren 29koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak onesten dituen 57/2019 Foru Dekretuaren aldaketa.

– **Erabakiak:**

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 191/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatuta, 3/2020 kreditua gaitzeko espedientea, 290.769,00 eurokoa, gizarte larrialdietarako laguntzen aurrekontu esleipena egokitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 192/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 21/2020 kreditu transferentzia eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aurrekontuko 4/2020 kreditu gaitzea, 78.180,50 euroko zenbatekoarekin, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eta Gizarte Politiken Sailak eskatutako "kontsumoko material sanitarioa" partida funtsez hornitzeko.

**BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 193/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea "A-625 errepidea, 357,30 KPtik 354,22 KPra arte, egokitzeko eraikuntza proiektuaren" zatitzea gauzatzeko okupatu beharreko azalera handitzea.

**INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA**

Foru Gobernu Kontseiluaren 194/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdean Elortza-Zekuiano tunelaren egitura egonkortzeko eta egokitzeko obren behin betiko likidazioa eta bermeak itzultzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 195/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea Arabako garbiguneen sarea kudeatzeko zerbitzuaren kontratuaren behin betiko likidazioa (1. lotea: Añanako garbigunea) eta bermea itzultzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 196/2020 Erabakia, apirilaren 29koa. Onestea bisitari asko pila-tzen diren gunetan eta urtegi bazterretan errefusa eta ontzi arinen frakzioak biltzeko zerbitzu kontratuaren behin betiko likidazioa, eta bermea itzultzea.